



## Euskararen berri OLAtu gainean



### 2012ko apirileko ALBISTEAK:

#### Don Boscoko ikasleek praktikak euskaraz egingo dituzte

2009-10 ikasturtean gauzatu zuten esperientzia-pilotu hartatik ateratako ondorioekin praktikak euskaraz egiteko oinarriko metodologia bat diseinatu zuten. Metodologia hori aplikatzen ari dira aurrean ere programan parte hartzen ari diren enpresetan.

**Oarsoarrak:** <http://www.oarsoarrak.net/euskara/albisteak/don-boscoko-ikasleek-praktikak-euskaraz-egingo-dituzte>

#### Hiztegia landu nahi? 'Gaurko Hitza' joko abian da!

Gaurko Hitza aplikazioa abian da. Aplikazioaren oinarrian joko bat dago eta haren helburua *Gaurko hitza*n urte hauetan azaldutako hitzak lantzea da.

**Sustatu:** <http://feedproxy.google.com/~r/sustatu/~3/3iBIVV65glA/1333474712>

#### Martxan da "klikmetroak" kilometroetako ibilbide birtuala eta telefono mugikor bidez ere egin daitezke metroak KMK 2012ko ibilbidean

Ibilbidearen bertsio birtuala zabaldu zuen Andoaingo Aita Larramendi ikastolak. Iaz azpeitiarrek ireki zuten bidean urrats berria egin dute andoaindarrek: 2011an Klikmetroak ekimenak internet bidezko metroak egiteko aukera eskaini zuten; 2012an, pauso bat harago, ordenagailuz ez ezik telefono mugikorraren bidez ere egin daitezke babesleen laguntzari esker diru bilakatuko diren metroak.

**Diario Vasco:** <http://www.diariovasco.com/v/20120426/al-dia-local/telefono-mugikor-bidez-egin-20120426.html>

**Gara:** <http://www.gara.net/paperezkoa/20120426/337065/es/Kilometroak-pone-marcha-su-recorrido-virtual-klikmetroak/>

#### Erabili euskaraz bizitzeko aukerak (gutuna, Dani Goñi. Bagerako lehendakaria)

Txalogarria iruditzen zaigu herritarrekin euskara hutsezko harremana izateko Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitasmoa. Egitasmo hori, ordea, ezertan gera daiteke herritarrok ez badugu aukera baliatzen. Datozen asteetan, errenta aitortpena egiterakoan, Aldundiarekiko harremana euskaraz izatea aukeratu ahal izango dugu. Erabilera omen da euskararen arazoa. Erabili dezagun, bada.

**Berria:** [http://paperezkoa.berria.info/berria/2012-04-20/005/004/erabili\\_euskaraz\\_bizitzeko\\_aukerak.htm](http://paperezkoa.berria.info/berria/2012-04-20/005/004/erabili_euskaraz_bizitzeko_aukerak.htm)

#### Donostiako Udalak merkataritzan euskara sustatzeko programa jarri du abian

Proiektuak "merkatarinet.net" du izena eta bere lehen fasean 600 bat establezimendu bisitatuko dituzte.

**Noticias de Gipuzkoa:** <http://www.noticiasdegipuzkoa.com/2012/04/16/sociedad/euskadi/el-ayuntamiento-pone-en-marcha-el-proyecto-merkatarinet-para-la-promocion-del-euskera-en-los-comercios>

#### Hizkuntzarako gaitasuna hobetzen du burmuinak lo egitean

Donostiako Basque Center on Cognition, Brain and Language (BCBL) zentroko ikertzaile Nicolas Dumay zera proposatu du: egunez jasotako ezagutza berriak gauez, lo egitean, finkatzen dituela burmuinak. Dumayren ikerketa eta haren ondorioak *Cognition* aldizkariak argitaratu ditu. Egunez ikasitako hitz berriak berraztertzen ditu burmuinak lo egitean, eta haiek finkatzen ditu era egonkor batean. Beraz, burmuinak hizkuntzarako gaitasun handiagoa izaten du lo egitean.

**Berria:** [http://paperezkoa.berria.info/plaza/2012-04-05/047/002/hizkuntzarako\\_gaitasuna\\_hobetzen\\_du\\_burmuinak\\_lo\\_egitean.htm](http://paperezkoa.berria.info/plaza/2012-04-05/047/002/hizkuntzarako_gaitasuna_hobetzen_du_burmuinak_lo_egitean.htm)

#### Euskalerria irratia, milaka aurpegi

Irrati lizentziaren bila 25 urte betetzear direnean. Euskalerria irratia eraberritzen prozesuan da, 1988ko azaroaren 7an jaio zenetik mende laurdenera. AukeraOn kanpaina jarri dute abian bazkide gehiago lortzeko asmoarekin.

**Zuzeu.com:** <http://feedproxy.google.com/~r/zuzeu/~3/52NAGRiJUyc/>

#### "Musika airean" Euskaraz bizi nahi dut film laburren lehiaketako irabazle

David Berrues iruindarra izan da "Musika airean" lanarekin Kontseiluak antolatutako "Euskaraz bizi nahi dut" Film Laburren Lehiaketaren irabazlea.

**Bai sarean.org:** <http://www.baisarean.org/2012/04/18/musika-airean-izan-da-euskaraz-bizi-nahi-dut-film-laburren-lehiaketako-irabazlea/>

#### Agindua Zor: hautagaiek kanpainen euskararen normalizazioaz agindutakoak gogoratzeko

Atari honen bidez alderdi edo hautagaiek publikoki hartutako konpromisoak jaso eta hedatu nahi dira, gerora, hauteskunde garaian emandako hitz hori bete dezaten eragiteko.

**Karrajua:** [http://feedproxy.google.com/~r/Atoan-KarrajuaLabur/~3/iODzscJcU\\_A/gu-geu-egitasmoa-mintzalagun-hirueleduna](http://feedproxy.google.com/~r/Atoan-KarrajuaLabur/~3/iODzscJcU_A/gu-geu-egitasmoa-mintzalagun-hirueleduna)

#### Zer iradokitzen dizue egoera honek?

Aldaba euskaltzaleon topaguneko blogean komiki adierazgarri bat aurkitu dugu.

**Berria:** [http://www.erabili.com/zer\\_berri/berriak/1301559944](http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1301559944)